

# Bidaiatzea plazer hutsa denean



**Test honetako galderei erantzuten badiezu, ikusiko duzu zein bidaia-mota eta helmuga turistiko egokitzen zaion ondoen zure izaerari. Aukera paregabea da zeure burua hobeto ezagutu eta zeure askatasunaz gozatzeko.**

## **Nolako maleta eramaten duzu oporretara?**

- A. Motxila handia bat, denetik sartu ahal izateko.
- B. Motxila txiki eta arin bat.
- C. Gurpildun maletatzarra.
- D. Kabinako maletatxoa, fakturatu beharrik ez izateko.

## **Oporretan zaude. Nolako oinetakoak janzen dituzu?**

- A. Mendiko botak
- B. Oinutsik ibiltzen naiz
- C. Sandaliak
- D. Oinetako dotoreak

## **Zein da zure kaleko janaririk gustukoena?**

- A. Kilker frijituak. Zergatik ez?
- B. Bokata eder bat.
- C. Beste guztiek jaten dutena.
- D. Saltxitxak edo hanburgesak.

## **Zein da zuretzat eguraldirik onena oporretarako?**

- A. Ez da garrantzitsuena, nahi dudana egiten uzten didan bitartean.
- B. Bero handia eta koktel bat ondoan
- C. Giro atsegina
- D. Ez du axola, edozein dela ere, arropa egokia daukazu-eta.

## **Zure lagunak ez du zure intereseko leku bat bisitatu nahi. Zer egingo duzu?**

- A. Bakarrik joatea erabakitzen duzu. Berarekin gero elkartuko zara.
- B. Amore eman eta beste une batean joatea erabakitzen duzu.

C. Plana ahaztu eta zure lagunarekin beste laku batera joatea erabakitzen duzu.

D. Itxaroteko esaten diozu, azkar-azkar bisitatzeko duzun bitartean.

## **Zein animaliarekin identifikatzen duzu zeure burua?**

- A. Elefantearekin
- B. Dortokarekin
- C. Surikatarekin
- D. Zakurrarekin

## **Astebete duzu jai. Zer egingo duzu?**

- A. Auzoa esploratzeko aprobeztatzen duzu.
- B. Igerilekuaren ondoan eseri eta liburu bat irakurriko duzu.
- C. Lagunak gonbidatuko dituzu etxera zerbait hartzera.
- D. Aspaldiko partez, ile-apaindegira joango zara.

## **Oporretan zaudela, zein da zure kezkarik handiena?**

- A. Aspertzea
- B. Galtzea
- C. Bakarrik bazkaldu/afaldu behar izatea
- D. Ekipajea galtzea

## **Larrialdi baten aurrean, zer egiten duzu?**

- A. Heroia izaten saiatzen naiz.
- B. Ingurukoak lasai mantentzen saiatu.
- C. Lekuko baten laguntza eskatu.
- D. Korrika egin! Gauza asko dituzu ikusteko.

## **Zer objektu aurkituko dugu zure autoan?**

- A. Lotarako zakua.
- B. Ordezko eguzkitako betaurrekoak.
- C. Mugikorraren kargagailua, ezin zara deskonektatuta bizi.
- D. Eskudirua, azken orduko erosketak egiteko.

## Emaitzak

### Erantzun gehienak A izan badira

#### Bakarkako abenturak

Mundua ezagutzeko gogo bizia daukazu, jakin-min ikaragarria. Abentura-plan guztiak onak dira zuretzat, baina bakarrik bidaiatzeko asmoa baduzu, kontuz ibili eta abentura txikiak egiten hasi lehenbizi. Sekula baino garrantzitsuagoa da motxila barruan zuhurtzia sartzea.

### Erantzun gehienak B izan badira

#### Irla xarmagarri baterako ihesaldia

Askok uste dute irla zoragarrietara bikotekidearekin joan behar dela, baina oker daude. Munduan irla tropikal asko dago, bakarrik bidaiatu nahi dutenentzako aproposak direnak. Aprobetxatu bidaia urpean igeri egiten ikasteko ikastaroa egiteko edo gozatu, besterik gabe, hondarra oinetan sentituz, ilunabar zoragarriez edota siesta eder bat nahi duzunean egiteko aukeraz.

### Erantzun gehienak C izan badira

#### Antolatutako bidaia

Jende gehiagorekin bidaiatzea gustatzen zaizu eta besteek zu eskutik eramatea duzu gustuko (neurri batean, behintzat). Bidaia antolatua erosoak iruditzen zaizkizu eta taldean bidaiatzeak seguru sentiarazten zaitu. Gainera, otorduetan ez zara sekula bakarrik egongo.

